

INTERPRETARITZA LANBIDE BERRIA EUSKAL HERRIAN

Definizioa eta sorrera

Interpretaritzaz hitz egiten hasi baino lehen, oinarri oinarritzko azalpen bat egin behar dugu ondorengo guztia ondo uler dadin. Interpretaritza, nolabait esateko, ahozko itzulpengintza da. Idatzizko testu bat hartu eta beste hizkuntza batetan horren ordezkotestua ematea da itzultzea.

Interpretaritza ordea hitzezko, ahotzezko hizketaren inguruan burutzen da. Jatorrizko materialea diskurtso mintzatua da eta bigarren hizkuntzan eskaintzen dena ere hitzezko diskurtsoa da.

Interpretaritza oso lanbide zaharra da, hizkuntza desberdinez mintzatzen ziren giza taldeak harremanetan sartu zirenean hasi bait zen eta, bitartekari lan hauetan ibiltzen zirenen aipamena askotan agertzen da historian zehar.

Bat bakarra aipatzearren Saulok Korintioei egiten zien gomendioa gogoratuko dugu: «Inor hizkuntza ezezagunez mintzatzzen bada, gehienez bi edo hiru aritu daitezela, txandaka, eta batek interpretazioa egin dezala. Interpretaririk ez balego, ixil bedi...» (Korintioak XIV 27-28).

Nolanahi ere XX. mende honetan agertzen da lehen aldiz Europan interpretaritza lanbide arautu gisa I. Mundu Gerraren

ondoren, 1919an Parisen burutu zen Bake Hitzaldian hain zuzen ere. Erabateko ezarpena II. Mundu Gerraren ondoren gertatu zen gehien bat, Nuremberg-eko epaiketan.

Interpretaritzea bi erataria egin daiteke, dela hizlariak iharduna bukatu ondoren (esanosteko interpretaritzea), dela hizlaria hitz egiten ari den unean bertan (aldibereko interpretaritzea).

Hasiera batetan esanostekoa zen gehien erabiltzen zen modalitatea baina egun, teknikaren laguntzari esker, aldiberekoa erabiltzen da kasurik gehienetan. Azken honek gainera, aukera ematen du hizkuntza bi baino gehiago erabiltzeko (horrelaxe gertatzen da nazioarteko ihardunaldi askotan, esaterako hizlariak errusieraz hitz egin eta entzuleek alemanieraz, ingelesez, portugesez eta euskaraz entzuteko aukera izan).

Interpretazio prozesua

Ikus dezagun jarraian zein prozesu gertatzen den interpreta-riaren baitan, hizlariak bere hizkuntzaz esaten ari dena «aldi berean» gu geurean entzun ahal izateko. Hiru dira prozesu hone-tako mailak; lehendabizi hizlariak adierazten duen mezua jaso eta ulertzea. Bigarren maila litzateke mezu horretako «azala», asmoak adierazteko erabili diren hitzak (hizkuntz adierazleak) ahaztea, ideiak edo kontzeptuak besterik ez gordetzea. Eta azkenik, hiru-garren pausua da jatorrizko mezua entzuleak ulertuko duen hiz-kuntzaz azaltzea.

Baina prozesu horretako hiru pausuak batera burutzen dira. Hizlaria hitzketan ari den bitartean entzun eta ulertzen du interpre-tariak, eta aldi berean segundu batzu lehenago adierazi duena esaten ari da entzuleen hizkuntzaz.

Lanbidearen berezitasunak

Horixe da hain zuzen ere jendea gehien harritzen duena, aldiberean entzun eta hitz egitea. Pentsa dezagun, hala ere, berez hitz egiten denean ere antzerako gauza egiten dela. Hitzketan ari garela ez dugu lehendabizi esaldi bat pentsatzen eta gero esan,

berriro pentsatu (ezer esan gabe) eta berriro esan, ez. Aldi berean pentsatu eta hitz egiten dugu.

Interpretariak antzera egiten du baina, asmoak ez datoz bere burutik, hizlarien hitzetatik baino. Hizlariaren mezua jaso, ulertu eta kontzeptu eta ideietara murriztu eta, ondoren, hizketa arruntak eskatzen duen prozesu berbera burutzen du.

Hau irakurtzean, hala ere, ez dezala inork pentsa hizkuntza bi ezagutzea nahikoa denik interpretari izateko. Oinarri-oinarrizko betebeharra dugu, jakina, hizlariaren eta entzuleen hizkuntzak sakonki ezagutzea baina, bestelako doinak ere behar dira. Hitz etorria, lasaitasuna,... batetik eta konzentratzeko gaitasuna, buru azkarra... bestetik.

Lan egiten ari den unean arreta erabatekoa eskatzen duen lanbidea dugu eta tentsio hori jasan eta aurre egiteko gauza izan behar du interpretariak.

Lanbide honen beste ezaugarri bat gaiak etengabe aldatzea da. Oso gai desberdinak lantzen ditu normalean interpretariak eta horretan ere harridura sortzen da askotan. Zelan lortuko ote duten gai guztietaz horrenbeste jakitea! Ez da hori errealitatea.

Interpretariak izan behar ditu bai, landuko den gaiari buruzko ezaugera orokorrak eta gai horren inguruko hitz berezitu zenbait ere ezagutu behar ditu erabiliko dituen hizkuntzatan. Baina ez du hizlari edo entzuleen bainako ezagupenik edukiko. Nahikoa zaio aldeaz aurretik aldizkari berezituak etab. irakurtzea oinarritzko hiztegi eta nozioak eskuratzeko eta, horrez gain hizlariaren antzeko gaitasun intelektuala behar du. Hitz batetan esateko, nahiz berak gai hori sakonki ezagutu ez, adimen maila nahikoa badu mezua entzuleei pasarazteko eta hanek jaso egiten dute.

Interpretariak bitartekari lana egiten du, ez kendu ez erantsi, helerazi. Hizlaria loturarik gabe eta trakets, arinegi, nahasian... mintzatzen bada ezingo du interpretariak lana ondo burutu eta entzuleek ez dute mezua ondo hartuko. Baina hizlariaren hizkuntza ezagutzen dutenek ere arazo berbera izango dute, interpretari beharrik ez badute ere.

Euskarazko interpretaritza

Hauxe da, gainera azaldua interpretariaren lana. Mende bukaerako gizarte honetan gero eta beharrezkoago bihurtzen ari den lanbidea da, askotan ezezagun samarra izan arren. Lan ederra, gizakiok elkar ulertzen laguntzen duelako eta aldi berean latza, etengabe erantzunkizun eta arreta osoaz egin beharrekoa. Falta da, hala ere, puntutxo bat aztertzeko, oso garrantzitsua gure kasuan: hizkuntza.

Ezin dugu ahaztu euskara oraindik normaldu gabeko hizkuntza dela, ez dela gizartearen arlotan normalki erabiltzen.

Argitalpenetan esaterako, nabarmen-nabarmena dugu hori. Astekari bakarra dago euskaraz, egunkaririk ez, liburuak ere urriak... Nora joko du orduan interpretariak gai teknikoei buruzko ihardunaldietan lan egin behar duenean? Zertan oinarrituko da esaterako hirigintza alorreko kongresu batetan euskarazko berbaldi normala eskaintzeko?

Bide luzea falta da oraindik baina ematen den urrats oro baliogarria da eta, interpretariak beraiek egiten duten saioa, aurre-rapausua dugu gure hizkuntzaren normalizaziorako.

Euskarak bestetik desberdintasun haundiak ditu inguruko erderekiko baina, eman dezakenaren kontra, ez da hau arazorik larrienetakoa. Egia da gure inguruko hizkuntza guztiak erromantzeak direla: frantseza, gaztelera, katalanera, galegoa, portugesa... Eta denok dakigu zein egitura desberdinekoak diren erromantzeak eta euskara.

Baina gainerako baldintzak normalak balira horrek ez luke zailtasun haundiegirik ekarriko. Errusiera edo japoniera bezalako hizkuntzetatik ere egiten da interpretaritza hizkuntza erromantzetara eta gertatzen den gauza bakarra da hizlariak azaldu eta entzuleek jasotzen dutenaren arteko desfasea segundu batzu gehiagokoa izaten dela.

Euskaraz ere horixe gertatzen da baina, normalizazio eza, egoera diglosikoa eta gainerako baldintzak ere gertatzen direnez,

zaila gertatzen da hizkuntzen urrintasun horrek zein eragin duen neurtzea.

Egungo egoera, etorkizuna

Bukatzeko, lanbide berri honen erabilera sozialari begiratu diogu, interpretaritza noiz, zertarako eta nola erabiltzen den. Normaldu gabeko herri honetan interpretarien iharduna ere ez bait da normala.

Beste alor askotan bezala Administrazioa aurkitzen dugu guzti honen erdian, interpretaritza-kontsumitzaile haundia bait da. Hainbat erakunde ofizialetako bileretan (Eusko Legebiltzarra, Batzarre Nagusiak, Udalak...) aldibereko itzulpen sistema eskaintzen da, euskaldunak euskaraz mintzatu eta erdaldunek ere bilera segitu ahal dezaten. Ez diot neuk ukatuko inori euskaraz nahiz erdaraz mintzatzeko eskubidea baina... interpretaritza eta itzul-pengintzak ez dute egoera diglosikoa ezabatze.

Kasu askotan adabakiak baino ez dira eta hori aurrean eduki behar dugu beti. Komunitate beraren barruan etengabe interpretaritza erabili beharra, normalizazio-ezaren adierazle argia dugu. Administrazioa eta politikariak elebidunak balira (gutxienez bigarren hizkuntza ulertzeko mailan), beste gauza batzuetarako erabili ahal izango genituzke hainbat indar eta diru.

Administrazioetik kanpo ere antzerako egoera gertatzen da maiz, euskara testimonialki erabiltzen da eta, gutxieneko erabilera hori bermatzeko, aldibereko interpretaritza eskaintzen da. Kasu askotan sarrera hitzak baino ez dira euskaraz esaten eta, urte askotako ohiturari jarraiki, behin baino gehiagotan, hizlariak berak errepikatu egiten ditu erderaz, lanean ari den interpretariaren harri durarako.

Argi dago eskubide osoa dugula euskaldunok edozein tokitan euskaraz hitz egiteko eta, interpretaritzak horretan lagun badezake, ondo etorria. Baina ez dezagun interpretaritza erabili benetako arazoak izkutatze.

Interpretaritzak gehien bat, kanpoko, beste herrialdeetako jendearekin elkar ulertzeko balio behar du, ez aldamenean egunero daukagun lankidearekin hitz egiteko.

Egoera guzti honek erabat baldintzatu du lanbide berriaren garapena eta ez da onerako izan nire ustez. Gaztelera-euskara interpretariak daude, horixe da gehien eskatzen dena baina, ingelesa-euskara, alemaniera-euskara, frantsesa-euskara...? Jaio baino lehen ere hankamotz?

Interpretariak gainera, ez dira gauetik goizera sortzen, prestatu egin behar dira. Orain arteko guztiak erabat autodidaktak izan dira, lanean ikasitakoak, berehalako eskaerari erantzuteko sortuak. Aurrera begira oster, oinarri sendoagoak ezarri behar ditugu. Hizkuntza desberdinetako interpretariak trebatu behar ditugu, lehen praktika ez dadila jendaurreko lehen saioa izan.

Itzultzaile-interpretari fakultatearen zai gaude oraindik, Iruñeko Unibertsitate Publikoan sortuko omen dute... Bitartean ikastaro labur batzu baino ez dira egin HAEE-k antolaturik esanosteko interpretaritzaren inguruan.

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte (EIZIE) Interpretaritza Batzordea ere badago eta hasiak dira euren arteko ariketa saioak egiten hutsunea ahal duten neurrian bete nahiean, besteren ezean.

Oraindik asko dira, ikusten denez, gainditu beharreko oztopoak. Erantzunkizun haundia izango dute horretan bai hezkuntza agintariak bai interpretariak beraiek baina, nahitaezkoa da informazio egokia izatea.

Erabat arrunta da egunotan telebistan nahiz edozein bileratan aldibereko interpretaritza entzutea edo erabil dadin eskatzea eta komenigarria da denok zer den jakitea. Lerro hauek gutxieneko asmo batzu argitzeko balioko dute espero dut.

Bego Montorio